

## Denon Eskolaren 2014ko Batzar Orokorra

Joan den azaroaren 22an **Denon Eskolaren 17. Ohiko Batzar Orokorra** ospatu genuen. Bertan Arabako ikastetxe publikoetako 22 Guraso Elkarte izan ziren ordezturik. Besteren artean 2013-2014 ikasturteko ekintza memoria eta balantze ekonomikoa onartu egin ziren eta horrez gain 2014-2015 ikasturterako jarduera proiektua eta aurrekontu ekonomikoa ere. Bestalde Mariturri ikastetxeko Galtzagorri Guraso Elkarte berria Federazioan sartzea onartu zen.

Gainera eztabaida ugari egon zen eta hainbat gairen gaineko proposamenak burutu ziren. Hona hemen laburki azpimarragarrienak:



### Zuzendaritza Batzordearen berriztapena

2014ko Ohiko Batzar Orokorrean **Denon Eskolako Zuzendaritza Batzordeko karguak berriztatu** egin ziren.

Zuzendaritza Batzordea une honetan honela gelditu da: **Presidentea** Carlos Lopez (Abendaño), **Idazkaria** Juanlu (Arantzabela), **Diruzaina** Juan Carlos (Umandi) eta **batzordekideak** Idoia (Koldo Mitxelena), Jose Ramon (Unamuno), Miren Eguzkiñe (Luis Elejalde), Rosa Mari (Lakua) eta Ana (Ibaiondo).

### Denon Eskolako Lan Taldeak

Besteren artean lan talde ezberdinak berriz ere bultzatzea erabaki zen eta hainbat pertsonen hain burua eskaini zuten aipatutako lan taldeetan aritzeko:

- **Garraioa eta jantokiak (Arduraduna Miren / Luis Elejalde LHI)**
- **Zonifikazioa eta kulturartekotasuna (Arduraduna Mikel / Salburua LHI)**
- **Normalizazio linguistikoa (Arduraduna Idoia / Koldo Mitxelena BHI)**


Webgunean azalduko dira eta Guraso Elkarte guztietara helaraziko dira bilera deialdiak zein ateratzen diren proposamen eta planteamenduak.

### LOMCEri buruzko informazio hitzaldiak!

LOMCEri gure ezezko borobila ematen jarraituko dugu eta gure ikastetxeetan ezartzearen kontra agertzen jarraituko dugu.

Horren inguruan aurreratzen dizuegu LOMCEri buruzko informazio hitzaldiak antolatuko ditugula interesa izan dezakezuen Guraso Elkarteentzako. Bertan ahal dugun neurrian zalantzak argitzen eta haren ezarpenak bai epeetan eta moduetan eta gure hezkuntza sisteman izango duen eraginean sakontzen saiatuko gara. Hori guztiagatik hitzaldia edo mahaingurua antolatzeko interesa duzuen Guraso Elkarteok jar zaitezte gurekin kontaktuan federazioan.

LO QUE NOS  
VIENE ENCIMA  
CON LA LOMCE



### 2014-2015 Ikasturterako lan ildoak

Federazioaren hainbat egitasmo eta lan ildori jarraipen ematea erabakitzen da:

- **IGEEen dinamizazioa** (IGEetara bisitaldiak eginez)
- **Prestakuntza** ikastaroak: IGEen kudeaketa, OOG, AJA,...
- **Ikastetxeetako BIDELAGUN eta Guraso Elkarteekin eskolaz kanpoko begiraleen kontratazioen kudeaketa.**
- **Bestelako kanpo foroetan parte hartzea:** Euskadiko Eskola Kontseilua, Euskararen Udal Kontseilua, Gasteizko Gizarte Kontseilua, Gasteizko Udaleko Eskola kontseilua, Eskola Kirolaren Foru batzordea...
- **Hezkuntzari Buruzko Informazio Bulegoa.**

OFICINA DE INFORMACION SOBRE EDUCACIÓN  
HEZKUNTZARI BURUZKO INFORMAZIO BULEGOA

Florida, 62-A  
Tel.: 945 27 31 40  
oficinainformacion@denoneskola.org  
www.denoneskola.org

**Servicio de Atención al Alumnado Extranjero**

مصلحة خدمة التلاميذ الأجانب

**Foreign Student Information Service**

**Service d'assistance aux élèves étrangers**

### Hauspoa—Ordutegi trinkoa

Hauspoa proiektuaren esperientziaren ebaluazioa egin nahiko genuke. Araba mailan bost ikastetxe publikotan burutzen ari da: **Koldo Mitxelena LHI, Lakua BHI, UnamunoBHI, Sansomendi IPI eta Laguardia BHI.** Institutuetako ordutegiaren jarraipena egin nahi dugu eta Hauspoa egitasmoak ezartzen dituen helburu eta oinarriko planteamenduak betetzen diren ikusi. Horretarako galdesorta bat bidaliko da ikastetxeetara eta elkarriketak burutuko dira Guraso Elkarteetako ordezkarietara.

### EHIGE Konfederazioa

2014-2015an Denon Eskolak (Carlos) bere gain hartzen jarraituko du txandaka antolatzen den EHIGE (Euskal Herriko Ikasleen Guraso Elkarte) konfederazioaren presidente kargua. Gainera, Euskal Eskola Publikoaren Jaia hurrengo 2015ko ekainaren 7an ospatuko da Elgoibarren **GUSTATZEN JATA, JAKU!!!** lelopean. *Hainbat material atera da saltzeko, hura ikusteko: [www.uskaleskolapublikoarenjaia.org](http://www.uskaleskolapublikoarenjaia.org)*

**GUSTATZEN JATA, JAKU**  
EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA

EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAREN 24. JAIA

**ehige** Elgoibar / Ekainak 7

GIZARTE EKINTZA

**Obra Social**  
Caja Vital Vital Kutxa